



## **2016KO ABUZTUAREN 02KO 311. ALKATETZAKO DEKRETUA**

IKUSIRIK: Barrundiako Udalak udalerrriaren ekonomia arloa bultzatzeko, 2015eko ekitaldian, sagar-zukua ekoizteko lokala abian jarri zuen eta horretarako makineria eskuratu.

GERTUA IZANIK: Beharrezkoa da sagar-zukua ekoizten den gunea egokitzea osasun arloko arautegia betetzeko.

GERTUA IZANIK: Alkate-Presidenteak, 2016ko uztailaren 27ko 299. erabakiaren bidez, Construcciones Zubia (Nicanor Zubia jauna) merkataritza-etxeari aurrenean aipatutako lan horiek gauzatzeko aurrekontua eskatu zion.

GERTUA IZANIK: Construcciones Zubia (Nicanor Zubia jauna) merkataritza-etxeak, 2016ko abuztuaren 2ko dataz, egitasmo horri dagokion aurrekontua aurkezten du, beronen zenbatekoa 15.908,06 €takoa izanik (BEZ barne).

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 412.622.002 aurrekontu-sailean nahiko diru dago gastu horri aurre egiteko.

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 138.3 artikuluan zehaztutako kontratu txikietan, espedienteak gastua onartzea eta dagokion faktura espedienteari gehitzea besterik ez du behar.

KONTUAN HARTUZ: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koa, 138. artikulua araberak, kontratu txikiak 50.000 eurotik beherakoak izango dira, baldin eta obra-kontratuak badira, eta 18.000 eurotik beherakoak, bestelako kontratuak badira.

KONTUAN HARTUZ: Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkutzeko Legearen 21.1.f) artikulua xedatutakoa.

### **ZERA ERABAKITZEN DUT**

LEHENA.- Construcciones Zubia (Nicanor Zubia jauna) merkataritza-etxeari, sagar-zukua ekoizteko gunea egokitze lan ezberdinak egitea esleitzea.

Eslaipenaren zenbatekoa 15.908,06 €takoa da (BEZ barne).

BIGARRENA.- Eslaipena 412.622.002 aurrekontu-sailaren pentzutan egiten da.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau Construcciones Zubia merkataritza-etxeari (Nicanor Zubia jauna) jakinaraztea, halaber udaleko arkitekto teknikoari eta udaleko arkitektoari.

Era berean, erabaki hau Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK,

Afro Olabe Mtnez. de Albeniz



IDAZKARIAK,

Jon Txopitea Zugadi